

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Behin betiko onarpena ematea txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzari

Bo170206B. Txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantza behin betiko ezartzeko espedientea jendaurrean egon den aldian ez da erreklamaziorik aurkeztu. Gainera, Oiongo Udalak behin betiko onarpena eman dio txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzari. Onartutako ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, denek jakin dezaten eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Ordenantza osorik argitaratzen da eta indarrean jarriko da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritako epealdia amaitutakoan, eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik uztailaren 13ko 26/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan.

Oion, 2017ko otsailaren 7a

Alkatea

EDUARDO TERROBA

Txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren testu osoa. Erreferentzia alfanumerikoa: Idaz/OrdTxosnas2016

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea txosna ez profesionalen eta antzekoen instalazio herriko edo auzoko jaietan eta bestelako aparteko ospakizunetan.

2. artikulua. Ezaugarri orokorrak

1. Instalazioak bakar-bakarrik jarri ahal izango dira Oiongo Udalak aurrez finkatutako lekuetan, aire zabaleko muntaiak badira, edo era honetako jarduerak egiteko baldintzak betetzen dituzten lokaletan.

2. Instalazio horiek betekizun teknikoak bete beharko dituzte pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko eta hirugarrenak molestatzea saihesteko, bat etorritik kasu bakoitzean indarrean dauden arautegiekin, bereziki hauei dagozkienetan: sendotasuna, egituren funtzionamendua, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriak, bai eta osasungarritasuna eta higieena ere.

3. Alkateak, edo, hala badagokio, Tokiko Gobernu Batzarrak edo organo eskudunak finkatuko ditu barrutiaren kokapena, instalazio kopurua eta aldiak.

4. Txosna batzordeak jendea biltzea dakarren edozein jarduera antolatzen badu, egitarau ofizialaren paraleloki, haien proiektu bat aurkeztu beharko du balioesteko egokia den eta bat datorren jai egitarau nagusiarekin.

5. Txosna barrutiaren aniztasuna bermatzeko, instalazioak proportzioz banatuko dira kultura, kirol eta gizarte ekintzako esparruen artean. Betiere, jarduera tokiko barrutian egiten duten auzotar elkarteak izan behar dute.

Irizpide hauek era aintzat kontuan hartuko dira:

a) Elkarrekin eskatzailearen errotze maila eta ibilbidea.

b) Bazkide eta kide kopurua.

c) Elkarrekin koordinazio maila eta presentzia, urtean zehar, bertako erkidegoarentzako beste proiektuetan.

6. Hala adierazten duten kolektibo, talde edo elkarteek txosna parteka dezakete beste talde batzuekin, arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua. Eskaerak eta baimenak

1. Interesdunek gutxienez hilabete aurrez aurkeztu behar dituzte eskaerak, eta jaien arloko eskumena duen zinegotziak ebatziko ditu, hala badagokio, jai batzordeak eta udaleko langile teknikoek proposatuta.

2. Baimena jasotzen duten antolamenduak behartuta daude arautegi honetan eskatzen diren baldintzak betetzera, edo ekitaldiari aplikatzekoak diren goragoko mailakoak. Ustiaketa ezingo zaie inola ere hirugarrenei edo alokairu moduan laga.

3. Ordezkarik bat izendatuko da, eta hori izango da solaskidea, ustiaketa hasi eta amaitu arte, udalarekin eta, halakorik egonez gero, jai batzordearekin. Jarduerak irauten duten bitartean lokalizatu eta harremanetan jartzeko moduan egon beharko du, eta, horretarako, noiznahi lokalizatu ahal izateko helbide bat eta harremanetarako mugikor bat eman beharko ditu.

4. Jarduera hasi baino lehen, erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko da, azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, ekitaldi publiko eta jolas jarduerenak, ezarritakoa adinako zenbatekoarekin, estaltzeko baimendutako jarduera egiteak hirugarrenei sortu diezazkiekeen kalte-galeren erantzukizunak.

Eskaerarekin batera frogia aurkeztuko da.

II. titulua. Instalazio eta funtzionamendu baldintza orokorrak

4. artikulua. Higiene eta osasun baldintzak

Instalazioak jarri eta erabiltzean, betiere, bete egingo dira saltzen diren produktuen eta instalazioen arautegi espezifikoek ezartzen dituzten higiene eta osasun baldintzak, bai eta ematen diren baimenetan zehazten direnak ere, halakorik egiten bada.

5. artikulua. Instalazio elektrikoaren baldintzak

1. Hartunea eta instalazio elektrikoa instalazio edo txosnen titularrak egingo du, bere kontura.

2. Txosnaren titularrak dagokion kontratua egin beharko du argindar konpainia hornitzailearekin, eta teknikari espezializatuak egindako industria buletina kontratatatu beharko du.

3. Onartuko da txosna bat baino gehiagoren baterako instalazio elektrikoa egitea, baldin eta baldintza tekniko egokiak betetzen baditu.

4. Kableak airetik jartzeko ahalegina egingo da, eta ezingo dira kableak lurrean utzi multzokatu eta behar bezala babestu gabe, ibilgailuak eta pertsonak igarotzeko.

5. Instalazio elektrikoaren ondorioz sortu litezkeen erantzukizunak nahasi eta/edo barreiatzea saihesteko, udalak eska diezaieke esleipendunei txosna guztietarako tekniko bakar berbera kontratatzea.

6. artikulua. Segurtasun baldintzak

1. 3. artikuluan aipatutako eskaerarekin batera egituraren dokumentazio teknikoa aurkeztu behar da, erantsiz 1:100 eskalako plano bat eta segurtasun eta muntaketa ziurtagiri bat, teknikari eskudun batek egin eta haren elkargo profesionalak ikus-onetsia, non bermatzen den instalazio egituraren sendotasuna, salbu eta konplexutasun tekniko txikikoetan eta instalazioaren ezaugarriengatik halakorik eskatzen ez dutenetan.

2. Ezingo dira zoruan ainguratu, eta eusteko beste elementu batzuk erabili beharko dira nahitaez, hala nola zapatak edo zurezko takoak.

3. Errekuntzako edo berokuntzako tresnak jartzekotan, elkarrengandik gutxienez 1,5 metrora jarriko dira. Gas bonbonek segurtasun balbula eduki beharko dute.

4. Gutxienez su itzalgailu bat jarri beharko da, 21^a-113B eraginkortasuneko, berrikuspenetan egunean dagoena eta erabiltzeko oztoporik gabe.

7. artikulua Egitarau nagusiarekin koordinatzeko baldintzak

1. Alkateak, kulturako zinegotziak edo gaiaren arabera eskumena izan lezakeen zinegotziak hala ebatziz gero, Oiongo Udalak uko egin diezaioke txosnak jartzeko leku publikoa okupatzearen tasak kobratzeari, baldin eta jarduera egiten bada jai egitarau ofizial eta tradizioaletan ezarritako ekitaldiekin koordinatuta.

Beste era bateko instalazioak kasuan-kasuan arautuko dira.

Ordainetan, elkarte salbuetsiek lagundu eta parte hartu beharko dute kultura, gizarte eta kirol jarduerekin.

2. Halaber, egoera onean mantenduko dituzte ekitaldiak egiteko udalak zuzenean edo zeharka lagatako azpiegiturak.

3. Euskara erabiliko da, gaztelaniarekin batera, txosnetatik edo aldi baterako instalazioetatik sortzen diren era guztietako errotulu eta oharretan.

8. artikulua Ordutegi, soinu eta merkataritza baldintzak

1. Irekitzeko eta ixteko ordua udalak erabakitakoa izango da, eta ezingo da izan ostalaritza establezimenduak ireki eta ixteko arauko 3. taldeko lokalen ordutegia baino zabalagoa. Jende guztiak jakin dezan, ixteko ordua adierazten duen kartel bat jarriko da begi bistan.

Ixteko ordua iristean, megafonia eta soinu tresnak isilduko dira, txosnak itxi egingo dira eta bertan bakar-bakarrik geldituko dira ixteko eta garbitzeko ardurak dutenak.

Instalazioa ezingo da erabili jai batzordeko arduradunek hala eskatzen dutenean, jai egitarauan jasota dauden hainbat ekitaldirengatik.

2. Bide eta leku publikoetan soinu igorpenen gehieneko mailek ezingo dituzte hauek gainditu:

— 95 dezibel jarduera hasten denetik 24:00ak arte, eta inoiz ez da hasiko 12:00ak baino lehen.

— 80 dezibel 24:00etatik itxi arte.

3. Salmenta prezioak kartel elebidun batean jarriko dira, jendearen bistan, uneko merkatu prezioekin bat etorritik.

4. Baimendutako txosnak behartuta daude estetika, garbitasuna eta ordena zaintzera, bai txosna barruan, bai kanpoan, haren edo txosna barrutiaren inguruan.

9. artikulua Jardueraren hasiera eta amaiera

1. Jarduera hasiko da udalak jai batzordearekin batera ezartzen dituen egunetan, eta udalak hala eskatuz gero, behar den aurretiaz instalatuta egon beharko du dagozkion ikuskatze teknikoak egin ahal izateko.

2. Halaber, udalak jai batzordearekin batera adieraziko du jarduera amaitzeko epea, eta material guztia jaiak amaitu eta 48 ordu igaro baino lehen kendu beharko da, okupatutako lekua eta inguruak guztiz garbi eta, hala badagokio, desinfektaturik eta konpondurik utzi beharko dira.

III. titulua. Tasak eta bermeak

10. artikulua. Tasak

Txosna eta antzekoak jartzeak jabari publikoa okupatzearen tasa sortuko du. Horren zenbatekoa kasu bakoitzean zehaztuko du udalak emandako baimen agirian, ordenantza honen 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita gerta litezkeenetan izan ezik.

11. artikulua. Bermea

Txosna edo instalazioa abiarazi baino lehen, eta estaltzeko kalte-galerak edo jarduera arau honetan ezarritakoaren arabera gauzatzen dela, berme bat ezarriko da udalean edo horretarako izendatzen den finantza entitatean; bermearen zenbatekoa ospakizun bakoitzerako finkatuko da.

IV. titulua. Zehapen araubidea

12. artikulua. Printzipio orokorrak

Ordenantza honen arau hausteak dira haren artikuluetan xedatutakoa eta baimenak emateko baldintza zehatzak urratzen dituzten ekintzak eta ez egiteak, eta hiru mailatakoak izan daitezke: arau hauste arinak, larriak edo oso larriak.

Arau hausteak zehazten dira apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 139. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, portaera horiek elkarbitzita harremanak hondatzen baitituzte, eta horregatik ezartzen dira arau-hauste motak arau honetan jasotakoa ez betetzeagatik.

13. artikulua. Arau hausteak

1. Arau hauste arinak dira:

Ordenantza honetan xedatutakoaren eta udalak emandako baimenetan azaltzen diren baldintzen ez-betetze guztiak, espresuki arau hauste larri edo oso larritzat jotzen ez badira.

2. Arau hauste larriak dira:

a) Instalazioa irekitzea ezarritako ordutegitik kanpo.

b) Zarata maila gehiegizkoa.

c) Ez onartzea edo oztopatzea udalaren ikuskatze eta kontrol lana.

d) jarduera hasi eta amaitzearen gainean 9. Artikuluan jasotakoa urratzea.

e) Ordenantza honetan jasotakoaren edozein ez-betetze, larritzat edo oso larritzat jotzen ez dena.

f) Bi arau hauste arin edo gehiago egitea.

3. Arau hauste oso larriak dira:

a) Instalazioa irekitzea aurrez udal baimena eskuratu gabe.

b) Kokatzeko esleitutako lekuak ez errespetatzea.

- c) Ez errespetatzea instalazioa jartzeko eta/edo kentzeko ezarritako egunak.
- d) Edariak beirazko ontzietan zerbitzatzea.
- e) Kalte larriak eragitea erabilera, zerbitzu edo ondare publikoko ondasunei.
- f) Bi arau hauste larri egitea.
- g) Esleitutako titulartasuna aldatu edo eskualdatzea, edo ustiaketa edo lekua lagatzea, osorik edo partez.
- h) Instalazioa aurreikusi gabekoetarako edo baimendutakoez bestelakoetarako erabiltzea.
- i) Osasun neurriak urratzea, osasun publikoaren arrisku larria sortuz.
- j) Kartelak eta/edo ikurrak jartzea pertsonen duintasunari eraso eginez edo terrorismoa babestuz, hala, arriskuan jarriz elkarbizitza edo jai ekitaldien normaltasuna.
- k) Bi arau hauste larri edo gehiago egitea.

14. artikulua. Zehapenak

1. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 141. artikuluan jasotakoaren bat etorritz ordenantza honetan araututako arau hausteetarako, zehapenak hauek finkatzen dira:

– Arau hauste oso larrietan, aukeran edo metaturik:

- a) 3.000 euro arteko isuna.
- b) Emandako baimena errebotatzea
- c) Txosna jarri edo erabiltzeko debekua, gehienez ere hiru urterako.

– Arau hauste larrietan, gehienez ere 1.500 euroko isuna.

– Arau hauste larrietan, gehienez ere 750 euroko isuna.

2. Zehapenak zehaztu eta ezartzerakoan, eta kontuan hartuta aurreko idatz zatian gehieneko zenbatekoak ezartzen direla, proportzionaltasun printzipioa hartuko da aintzat, zeina jasotzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 131. artikuluan, eta behar bezalako egokitasuna egon beharko du arau-hauste egintzaren larritasunaren eta ezartzekoa den zehapenaren artean, batez ere irizpide hauei begiratuz:

- a) Nahita egin den edo behin eta berriz egin den.
- b) Eragindako kalteak nolakoak diren.

15. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea

Udal agintaritzak egoki jotzen dituen kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu, jarduera uzteko agintzea eta hura zigilatzea barne, baldin eta ez badira betetzen baimenean ezarritako baldintzak, instalazioan arriskua balego edo osasun neurriak betetzen ez badira, osasun publikoaren arrisku larria sortuz.

Horrelako neurriak har daitezke, orobat, oso larritzat jotzen diren egintzak gertatzen badira, hondatutako elkarbizitza harremanak bere onera ekartzeko, egintzak jarraitzea edo errepikatzea edo kalteak sortzen segitzea saihesteko.